






Jardunaldia EMAKUMEEN ESKUBIDEAK GARAPEN JASANGARRIRAKO 2030 AGENDAN

Tokia:  BBK Kuna. Bilbo
Streaming:  <https://www.youtube.com/unescoetxeapv>
Data:  2022ko martxoaren 24a

SARRERA

Genero-berdintasuna funtsezko giza eskubide bat da eta mundu baketsu, aberats eta jasangarri bat lortzeko beharrezko oinarria. Hala eta guztiz ere, gaur egun oraindik ere desparekotasun handiak daude gizon-emakumeen artean gizarte guztietan eta esparru guztietan, hala nola osasunean, hezkuntzan, ordezkaritza politikoan eta lan-merkatuan. Arazoa mundu mailakoa eta egiturazkoa da.

2030 Agenda eraldatzailea inplementatzea guztiz lotuta dago agendak **giza eskubideen** konpromiso orokorrari eustearekin. GJHeK pertsona guztien giza eskubideak errealitate bihurtzea dute helburu. Agendak garapenerako helburu eta xede guztientzat funtsezkotzat jo ditu genero-ekitatea eta emakumeen eta nesken ahalduntzea, eta berretsi egin ditu gobernuek hartutako konpromisoak Biztanleriari eta Garapenari buruzko Kairoko Nazioarteko Goi Bilerako Ekintza Programarekiko, bai eta Beijingo Ekintza Plataformarekiko ere, eta konpromiso horien jarraipena egiteko.

Erakunde feministen eta emakumeen eta giza eskubideen erakundeen eginkizuna funtsezkoa da **genero-ekitatea eta giza eskubideak 2030 Agendako ardatz nagusiak izango direla** ziurtatzeko eta gogor borrokatu dute giza eskubideen printzipioak eta betebeharrak agendan islatu daitezen. Emakumeen Eskubideen ikuspegiarekin jardutea ezinbestekoa da benetako ekitatea lortu nahi badugu. **GJHen eta emakumeen eskubideen arteko lotura ulertzea da 2030 Agenda modu eraginkor eta eraldatzailean egia bihurtze aldera aurrera egiteko modua.**

HELBURUAK

- 2030 Agendaren eta emakumeen eskubideen arteko erlazioari buruzko ezagutza bultzatzea, giza garapen jasangarrirako gako elementu gisa.
- Emakumeen eskubideen esanahiari, inplikazioei eta aurrerapenei buruzko hausnarketa egitea 2030 Agendan.
- Emakume talde desberdinen borroken errealitateari buruzko esperientziak ezagutzea.

EGITARAUA

09:00 – 09:15 **Izen-ematea eta dokumentazio bilketa.**

09:15 – 09:30 **Sarrera-ekitaldia.**

- **Nieves Fernández**, *UNESCO Etxeko lehendakaria.*
- **Eider Inunciaga**, *BBK Kunako zuzendaria.*

09:30 – 10:30 **2030 Agenda eta emakumeen eskubideak.**

Elkarrizketan:

- **Almudena Rodriguez**, *l'Associació de Drets Sexuals i Reproductius elkarteko Eragin Politikoko arduraduna eta Europako eta Erdialdeko Asiako Women Major Group taldeko koordinatzailea.*
- **Izaskun Landaida**, *Emakundeko zuzendaria.*
- **Arantzazu Acha de la Presa**, *UNESCO Etxeko zuzendaria.*
- **Eider Inunciaga**, *BBK Kunako zuzendaria.*

10:30 - 11:00 **Galderak egiteko tartea.**

11:00 - 11:30 **Kafea hartzeko atsedena.**

12:00 – 13:00 **Kasu praktikoak.**

- Emakume migratzaileak Euskadin | **Francy Fonseca**, *Emakumeak Aniztasunean.*
- Emakume ijitoen eskubideak | **Tamara Clavería**, *AMUGE elkarteko lehendakaria.*
- Emakumeen aurkako indarkeria Guatemalan | **Irene Martínez Beaskoetxea**, *Oscarte GGKE.*
- *Emakume musulmanak beren eskubideen alde borrokan* | **Sukaina Soussi Lahfaqui**, *Bidaya Elkartea.*

13:00 - 13:30 **Galderak egiteko tartea.**

13:30 **Amaiera.**

Izen-emateak: <https://forms.gle/1jsN1HfsZQnS3tT7A>